




WIKI LIBURU TEGIAK

EDUKI DIGITALEN
SORKUNTZA WIKIPEDIAN



Liburuzainek, liburuak zaintzeaz gain, idazleak ere zaintzen dituzte. **Idazlezainak** taldeak Wikipedian egiten du hori, sortzaileen artikulua sortuz, gaurkotuta mantenduz eta ahalik eta baliabide gehien eskainiz. 2018-2019an bi esparru lantzen ari dira: Euskal Herriko Unibertsitateko Donostiako Irakasleen Eskolarekin batera Haur eta Gazte Literaturako edukiak eta Idazlezainak egitasmoan Euskal Literatura eta Literatura Unibertsaleko edukiak. Hezkuntza Egitasmoarekin bat eginez ari dira Idazlezainak literatura unibertsaleko egileen artikulua lantzen. Helburua: 12-16 urteko ikasleek kalitatezko artikulua euskaraz topatzea Wikipedian, beste hizkuntzetako wikipedietara joan behar ez izateko. Hasteko, jada euskaraz irakurri ditzakegun egileen artikulua landuko dituzte eta horretarako EIZIEk egindako Literatura Unibertsala Bilduma hartu da oinarri. Proiektu hauek aurrera eramateko wikilari egoiliar bat ari da Haur Liburuaren Dokumentaziogunean lanean.

Donostia Kulturak Wikiliburutegiak proiektua bultzatzen du Euskal Wikilarien Kultura Elkartearekin eta Euskal Idazleen Elkartearekin elkarlanean. Horrela gauzatzen ari da Wikiliburutegiak proiektuaren helburua: liburutegiak gordetzen dituzten funtsak ezagutaraztea eta, batez ere, boluntario komunitatea sortzea liburuzainen artean Wikipedian edukiak editatzeko eta beste hizkuntzetan daudenak euskaratzeko. Donostiako Udal Liburutegien Sareko liburuzainekin batera, Koldo Mitxelena Liburutegiko liburuzainak eta Habe Liburutegiko liburuzainak ari dira elkar lanean.